

GAO 2006ko Urriaren 4an 189. Zk

Arrazoien azalpena

Krisi egoeretan, autonomia galtzean, edo gatazka nahiz gizartera egokitu ezinaren ondorioz sortzen den desegituraketa (pertsonala nahiz familiakoa) aurreikusi eta tratatzea du helburu Familia eta Elkarbizitza programak. Horretarako, familiari laguntzeko baliabideak edo arazoen aurrean egokiak diren elkarbizitzarako aukerak kudeatu, sortu edo bultzatzen dira.

Bestalde, gizartearen behar eta eskaerentzako erantzunak herritarrengandik ahalik eta hurbilen kokatu behar dira, euren gizartean bertan, eta alde horretatik beren ohiko ingurunetik aldentzea ekarriko ez duen baliabideetan oinarritutako jarduketa-politika bultzatu behar da. Horri dagokionez, Eguneke Zentroak familian eta gizartean behar bezala txertatzeko aukera ematen die bertan dauden pertsonen.

Bi oinarri hauetatik eta Beasaingo errealitatetik abiatuta, Beasaingo Udalak Urbialde plazan, 6 zk. behean dagoen Eguneke Zentroa sortu du.

Xedea

Arautegi honen xedea da udalerri honetako Eguneke Zentroak ematen dituen zerbitzuak arautzea, gizarte zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legeak, urriaren 17ko 20/2000 Dekretuak, laguntza behar duten pertsonentzako eguneke zentroei buruzkoak eta Gipuzkoan pertsona adinduentzat plazak lortzeko arauak ezartzen dituen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuan ezarritako baldintzen arabera.

Aplikazio-eremua

Barne-arautegia erabiltzaileei eta/edo haien familiakoei, beren legezko ordezkariak eta zentroko langileei aplikatuko zaie, eta hura betetzera behartuta egongo dira.

Eguneke Zentroan sartzean emango zaie arautegia; horrela, erabiltzaileek eta familiakoei edo legezko ordezkariak beharrezko informazio guztia izango dute zentroari buruz, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuei buruz eta pertsonen zentroan egonaldi egokia izateko eta baldintza onetan egoteko bete beharreko arau orokor guztiei buruz.

Deskribapena

Izena: Loinatz, Eguneke Zentroa.

Tokia: Lanegunetan: 18 pertsona.

Asteburu eta jaiegunetan: 12 pertsona.

Izaera: Laguntza behar duten adineko pertsonentzako Udal Egunekeko Zentroa.

Definizioa

Laguntza behar duten adinekoentzako Egunekeko Zentroa hau izango da: Eguneroko zereginetarako laguntza behar duten 60 urtetik gorako bost pertsonari edo gehiagori, egunez eta banan-banan, atentzio-programa bat eskaintzen dien establezimendua; beste pertsona batzuei ere eskain diezaieke arreta hori, hain zuzen ere, gorabehera pertsonal edo sozialengatik aipatutako kolektibo horrekin parekatu daitezkeenei. Arreta hori berariaz jarritako gune eta instalazioetan eman beharko du, eta helburu horretarako prestatutako langileak eta programak eduki beharko ditu.

Beren familiako egoerarengatik, egoera sozialarengatik edo urritasun fisiko edo adimen urritasunarengatik eguneroko zereginetan dituzten premiei erantzuteko etxean eman dakiekeen laguntza baino handiagoa behar duten adineko pertsonentzako pentsatuta dago Egunekeko Zentroa.

Helburuak

Helburu orokorra:

Laguntza behar duten adinekoen eta senitartekoen bizi-baldintzak egokiak izan daitezen laguntzea, eta alderdi biei ahalik eta autonomia eta bizi-kalitate handiena ematea.

Berariazko helburuak:

- a. Laguntza behar duen adinekoak bere ohiko ingurunean jarraitzeko aukera ematea.
- b. Erabiltzaileen beharrei erantzutea, ahalik eta autonomia handiena lortzeko behar diren programak garatuz.
- c. Erabiltzaileen senideei laguntza eta aholkuak ematea, adinekoek beren ingurunean bizitzen jarrai dezaten, eta zainketa-lanak egiteko behar den jokabideari buruzko informazioa ematea.

Zerbitzuak

Egunekeko Zentroan honako zerbitzuak eskaintzen dira:

- a. Garbitasuna: Erabiltzaile guztiek izango dute eskubidea astean

behin garbiketa osoa egiteko. Era berean, behar duten guztietan aldatuko zaizkie arropak.

- b. Mantenua: Mantenuaren barruan eguerdiko otordua eta merienda sartzen dira.
- c. Garraioa: Etxetik zentrorako bidaia eta itzulerakoa hartzen ditu. Zerbitzu hau hautazkoa da.
- d. Bana-banako Oinarrizko Arreta eta Berregokitze Zerbitzuak beren eguneroko zereginetarako:
 - Eguneroko oinarrizko zereginak egiteko laguntza. Jokabide-arazoak konpontzeko programa.
 - Erabateko balorazioa egitea eta Zaintza Pertsonalen Plana prestatzea.
- e. Osasun-zerbitzuak:
 - Mediku- eta erizaintza-zerbitzua: Koordinazioa eta jarraipena Osakidetzarekin.
- f. Zerbitzu psikosozialak eta animazio soziokulturaleko zerbitzuak:
- g. Familiarentzako laguntza eta orientazio-zerbitzua.

Sartzeko baldintzak

Egunekeko arretarako ekipamenduetara sartu nahi duten adineko pertsonek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a. 60 urte beteta edukitzea.
- b. Gipuzkoako udalerriren bateko erroldan egotea, gutxienez eskaera egin baino 24 hilabete lehenagotik.
Baldintza hori ez dute bete beharko Gipuzkoan jaio edo eskaera egin aurreko 10 urteetan gutxienez 24 hilabete Gipuzkoan bizi izan direnek, baldin eta familia berriz biltzeagatik edo arrazoi sozialengatik eskatzen badute.
- c. Erakunde sanitarioen laguntza jarraitua edo osasun publikoko neurrien premia ez edukitzea.
- d. Zentroan elkarbizitza normala izatea nabarmen eragotziko duen jokabide arazorik ez edukitzea.
- e. Laguntza behar duen adineko pertsona» izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiak autonomia/dependentzia maila baloratzeko duen eskalaren arabera, edo aurrerantzean ezartzen den beste eskalaren baten arabera.

Eskaera, balorazio eta ebazpenerako prozedura

Prozedura hau Gipuzkoan pertsona adinduentzat plazak lortzeko arauak ezartzen dituen apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuan ezarritako baldintzei lotuta egongo da.

Eskaerak eskatzailea bizi den herriko Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar dira.

Eskatzaileak baimena emango die Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei eta Gipuzkoako Foru Aldundiari berari buruzko datuak egiaztatu edo eskatzeko egin behar dituzten kudeaketak egiteko.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Gipuzkoako Foru Aldundira honako agiri hauek bidaliko dituzte: Eskaera-orria beteta, gizarte- eta familia-balorazioa eta eskatzailearen egoera ekonomikoari buruzko datuak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak, arrazoiak emanaz, ebazpena emango du, eskaera onartuz ala ukatuz. Ebazpen horren aurka Gora Jotzeko Errekurtsoa jar daiteke Foru Diputatuak erabaki dezan.

Ordutegia eta egutegia

Ordutegia:

Zentroa 9:30ean irekiko da lanegunetan, eta zerbitzua 17:30ean itxiko da.

Asteburuetan eta jaiegunetan, 10:30ean ireki eta 17:30ean itxiko da.

Garraio-zerbitzua behar duten erabiltzaileen sarrera eta irteerako ordutegia aldatu egin daiteke jarritako garraio txandaren arabera.

Bazkaria 12:30etik 13:30era bitartean izango da. Ordutegi horretatik kanpo merienda bakarrik emango da.

Atsedeen-orduak 14:00etatik 15:30era artekoak izango dira lanegunetan eta 14:00etatik 15:00etara artekoak asteburu eta jaiegunetan, eta hori errespetatu egin beharko da atsedenerako gelan.

Egutegia:

Zentroa urte osoan egongo da irekita, astelehenetik igandera, abenduaren 25ean eta urtarrilaren lehen izan ezik. Urtero, zentroaren egutegia emango zaie erabiltzaileei.

Sarrera eta egokitzen-aldia.

1. Zentroan sartzea onartzean, erabiltzaileak adierazitako egunean joan beharko du zentrorra edo beranduenera ere hitzartutako sarrera-egunetik 2 eguneko epean.
2. Epe horretan zentrorra sartzen ez bada erabiltzaileari egotzi dakioken arrazoiaren batengatik, erabiltzaileak beste 3 eguneko epea izango du sartzeko. 3 egun horiek plazaren erreserbako egun bezala kontatuko dira, eta erabiltzaileak «plazaren erreserba»

kostatzen dena ordaindu beharko du. 5 egun pasa eta bidezko arrazoirik gabe interesatua oraindak ez bada zentrorra sartu, izapidetutako txostenaren arabera eskuratu dituen eskubideei uko egiten diela ulertuko da.

3. Baldintza bereziengatik erabiltzailea ezin bada zentrorra sartu ezarritako egun edo epean, interesatuak eguna aldatzea edo sartzeko epea luzatzea eskatu ahal izango du, Udalaren Gizarte Zerbitzuekin beste egun edo epe bat adostuta, eta aurretik akordioa lortuta Gizarte Politikarako Departamentuarekin. Hala ere, egoerak hala eskatzen badu, plaza hori eskatzaileen zerrendako beste pertsona bati eman ahal izango zaio, eta epe barruan sartu ezin izan den pertsona lehenengo geratuko da eskatzaileen zerrendan, beste plaza bat libre noiz geratuko zain.
4. Zentroan sartu aurretik edo bestela sartzeko egunean bertan, zentroak erabiltzaileari eta bere familiari edo bere arretaz arduratzen den pertsonari jakinaraziko dio zein arauk zuzentzen duten zentroaren funtzionamendua, erabiltzaileak ulertzeko hizkuntzan eta moduan. Erabiltzaileak onartu egin beharko ditu arauak zentroan sartzeko.
5. Erabiltzaileak zentroan sartu eta hurrengo bi hilabeteetan, zentroaren ezaugarri eta funtzionamendura eta erabiltzaile guztien arreta eta ongizaterako gutxieneko elkarbizitza-ohituretara egokitzeke aldian egongo dira. Zentroaren zuzendaritzak edo bere izenean erabiltzailearen erreferentziako pertsonak uneoro komentatuko dizkio sortzen diren arazoak, eta beharrezko konponbideak bilatuko dira erabiltzailea ondo egokitzeke.
6. Erabiltzailearekin konponbideak bilatzen saiatu ondoren, ikusten bada zentrorra ez dela egokitzen edo zentroak ez dituela erabiltzailearen premiak betetzen, zentroaren zuzendaritzak Beasaingo Udalari (zentroaren titularrari) jakinaraziko dio. Beasaingo Udalak egoera ebaluatu eta ebatziko du Gizarte Politikarako Departamentuarekin batera.
7. Erabiltzaileari eta bere legezko ordezkariari hartutako ebazpenaren berri eman ondoren, 10 eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.
8. Gizarte Politikarako Departamentuak eta Beasaingo Udalak alegazioak aztertu eta beharrezko erabakia hartuko dute. Erabiltzaileak zentroa uztea erabakiz gero, ordezeko aukera bat proposatuko zaio.

Erabilera-araubidea

Justifikatutako arrazoiengatik erabiltzailea zentroan ez dagoenean (ospitaleratuta, gaixorik edo oporretan), plaza erreserbatuko zaio, eta ezarritako kuotaren %75 aplikatuko zaio.

Erabiltzailea zentroan ez dagoen zazpigarren egun naturaletik aurrera

aplikatuko zaio plazaren erreserba.

Ospitalean edo oporretan egoteagatik ezartzen den plazaren erreserba aurreneko egunetik aplikatu ahal izango da, beti ere astebete aurretik jakinarazten bada.

Plaza erreserbatzeko gehieneko denbora hiru hilabetekoa izango da.

Zentroan ez egoteko arrazoiak zentroko zuzendaritzari jakinarazi beharko zaizkio, eta baita itzultzeko data ere.

Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

Egunekeko Zentroko erabiltzaileek eskubide hauek izango dituzte:

1. Zentroan sartu eta laguntza jasotzekoa, beren sexu, arraza, erlijio, ideologia edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik baztertuak izan gabe.
2. Erabiltzaileei interesatu edo eragin dakiekeen edozein gairen inguruan informazioa jasotzekoa eta kontsultatzena.
3. Beharrezko laguntza jasotzekoa, zuzentasunez, errespetuz eta erabiltzailea ulertuz, banaka eta era pertsonalizatuan.
4. Erabiltzailearen intimitatean eragina duten datu pertsonalak sekretupean tratatzena.
5. Beren intimitatea errespetatzeko eskubidea, inkontinentzia arazoak egoki tratatzea bermatuz, bainatzerakoan erabiltzaileen intimitatea zainduz eta beste pertsonekin harremanak izateko askatasuna errespetatuz, besteak beste.
6. Zerbitzuen funtzionamenduari buruzko proposamenak edo erreklamazioak edo zerbitzuak hobetzeko proposamenak zuzendaritzari helaraztekoa eta horien inguruko erantzuna jasotzekoa.
7. Norbere borondatez zerbitzuak ez erabiltzekoa edo zentroan ez geratzekoa.
8. Erraz ulertzeko moduko hizkuntzan eskubide hauen berri izatekoa eta eskubideak betearazteko bideen berri izatekoa.

Egunekeko Zentroko erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

1. Egunekeko Zentroko barne-arautegian ezartzen diren erabilera-arauek jakitea eta betetzea.
2. Errespetuz, tolerantziaz eta lankidetzaz jokatzeko, elkarbizitza ahalik eta egokiena izateko.

Funtzionamendu-arauek

1. Gaixotasunak harrapatzeko arriskua dagoenez, garrantzitsua da osasun-arau batzuk zaintzea eta derrigor betetzea:

Ez zaio zentroan sartzen utziko honako baldintzaren bat duen erabiltzaileari:

- Zikinkeria eta garbitasunik ez izatea.
- Sukarra.
- Nekea.
- Mukositatea eta/edo odola duten beherakoak.
- Gonbitoak.
- Jokabide arazoak edo beste era bateko arazoak, erabiltzaileentzat eta/edo zentroko langileentzat arriskua badakarte.

2. Erabiltzailearen osasuna zaintzeko erabiltzaileak euskarriren bat behar duela zehazten eta/edo baloratzen bada, familiarekin adostuko da, eta jakinaren gainean edukiko da beti, ahal izanez gero aldeztu aurretik.
3. Familiaren ardura izango da erabiltzaileari medikuarengana laguntzea, errezetak, erosketak etab.
4. Medikuaren aginduz ospitaleratzea beharrezkoa denean, familia arduratuko da horretaz.
5. Zentroak ikusten badu erabiltzaileen osasun fisikoa eta/edo buruko osasuna okertu egin dela, familiari jakinaraziko dio eta zein neurri hartu beharko den baloratuko du (medikuarengana bisita egitea, etxera itzultzea). Larrialdi kasuetan, zentroak larrialdi medikoen zerbitzuari abisatuko dio eta ezarritako prozeduraren arabera jokatu du.
6. Erabiltzaileak emango dizkio zentroari bai behar dituen botikak bai pixoihalak ere.
7. Erabiltzailearen osasunean eta medikazioan aldaketaren bat egon bada, zentroari jakinarazi beharko zaio eta dagozkion txostenen kopia eman beharko zaizkio.
8. Ospitaleratuta egon ondoren, medikuaren alta-txostenaren kopia eman beharko zaio zentroko zuzendaritzari.
9. Zentroko zuzendaritzak zentroan bertan eta garraio-zerbitzuan emandako arretaren ardura bakarrik hartuko du.
10. Guztiz debekatuta dago zentroko langileei eskupekoak eta opariak ematea.
11. Ahal dela, lagunen eta familiakoen bisitak etxean egingo dira. Ezinezkoa bada, zentroan egin ahal izango dira, ostiraletan, 16:15etik 17:00etara, aurretik zuzendaritzari jakinarazita.
12. Zentroak, erregistro-fitxen bitartez, gai hauen berri emango du astero: Jarduerak, janaria, jarrera, jokabidea, harremanak, medikazioa eta azalpenak.
13. Zentroko erabiltzaileak jarritako menuetara egokituko dira. Jatekoa berdina izango da denentzat, medikuak bestelakorik agindu ezean. Kasu horretan, zentroak agindutako menua bermatzen saiatuko da.
14. Zentroko zuzendaritzak idatziz edo telefonoz jakinarazi beharko du erabiltzaileak zentrori zein gauza eraman behar dituen (alda-

tzeko arropa, garbitzeko elementuak etab.), bai zentroan sartzeko unean bai ondorenean ere.

15. Norberarenak bezala zainduko dira zentroak uzten dituen altzariak, tresnak eta gainerako gauzak.
16. Udaleko eta zerbitzua kudeatzen duen enpresako ordezkariak osaturiko jarraipen-batzorde bat eratuko da arautegi honetan jaso ez diren alderdiei irtenbidea aurkitzeko.

Baja-arrazoiak

- Borondatezko baja.
- Zentroko gainerako erabiltzaileekin bizitzeko ezintasuna.
- Ezgaitasun-maila aldatzea. Arreta espezializatuagoaren premia izate, beti ere zentroak ezin badu eman arreta hori.
- Beste zerbitzu eta/edo udalerri batera aldatzea.
- Dagokion ekarpen ekonomikoa ez ordaintzea. Kasu horretan, zerbitzua eteteak ez du esan nahi zerbitzua kudeatzen duen erakundeari ordura arte egindako zorrak ordaintzetik aske geratuko denik.
- Heriotza.
- Diziplina-arrazoiagatik.

Erreklamazioen, iradokizunen eta kexen sistema

Egunekeko Zentroak iradokizunen gutunontzia eta erreklamazioen liburua edukiko ditu, kexen eta hartutako neurrien erregistroa bermatzeko.

Hutsegiteak, zehapenak eta errekurtsioak

Zentroko elkarbizitza normala eragozte, elkarbizitzari kalte egiten dioten ekintzak egitea eta adinekoek beren betebeharrak ez betetzea hutsegitetzat hartuko da, eta administrazio- eta zigor-zehapenak jarri ahal izango dira, legezko beste erantzukizunen artean.

A. Hutsegiteak:

Arinak:

- Elkarbizitzako eta elkarrenganako errespetuko arauak ez betetzea, ezinegonak sortuz adinekoen artean edo zerbitzuko langileen artean.
- Instalazioak eta zentroko bitartekoak egoki ez erabiltzea edo zentroko jarduerak nahastea.
- Edozein eratako liskar eta sesio edo borroka eragitea edo horietan parte hartzea.

Larriak:

- Hutsegite arinak behin eta berriro egitea, urtebeteen egindako hirugarrenetik abiatuta.
- Elkarbizitzako arauak askotan ez betetzea, ezinegon sortuz zentroan bertan.
- Beste erabiltzaileak edo zerbitzuko langileak iraintzea, biraoak esatea edo beste edozein errespetu-falta egitea.
- Adinekoei, zentroari edo zerbitzuko langileei ondasunak edo edozein eratako objektuak lapurtzea.
- Txosteneko datu pertsonalak faltsutzea edo datuak ezkutatzea edo gauza bera egitea zentroko edozein prestazio edo zerbitzu jasotzeko eskubidearen inguruan.

Oso larriak:

- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea, urtebeteen egindako hirugarrenetik abiatuta.
- Adinekoei, zentroko langileei edo zentroarekin lotura daukan edozein pertsonari fisikoki erasotzea edo tratatu txarrak ematea.

B. Zehapenak:

- Hutsegite arinetan: Pribatuan hitzez kargu hartzea edo baita idatziz ere. Zentroko zuzendaritzak jarriko ditu zehapenak, edo bestela zerbitzuko arduradunek, zuzendaritzaren izenean edo zuzendaritza bertan ez den kasuetan.
- Hutsegite larrietan: Egun letik 7 egunera bitartean zentrotik kanporatzea. Zentroko zuzendaritzak ezarriko ditu zehapenak, aurretik, zentroaren jabe den, Udalaren onespina edukita eta interesatuari entzunda.
- Hutsegite oso larrietan: 7 egunetik 30 egunera bitartean zentrotik kanporatzea. Behin betiko ere kanpora daiteke. Zentroko zuzendaritzak ezarriko ditu zehapenak aurretik, zentroaren jabe den, Udalaren onespina edukita eta interesatuari entzunda.

C. Errekurtsoak:

- a. Hutsegite arinagatik ezarritako zehapenak zentroko zuzendariaren aurrean errekurritu ahal izango dira.
- b. Hutsegite larri eta oso larriagatik ezarritako zehapenak Udalaren aurrean errekurritu ahal izango dira.

Xedapen indargabetzailea

Araudi hau onartu eta indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko da «Beasaingo Egunekeo Zentroko Araudia», Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2000ko azaroaren 30ean argitaratutakoa.

Indarrean sartzea.

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Azken eguneratzea: 2008/07/25